



LIBURUA

Egiazkoak zein apokrifoak



URRE URDINAREN LURRINA

JURGI KINTANA
PAMIELA, 2009

ARITZ GALARRAGA

L iteratura ikerlari, ikastun, “eskukatzaile” guztien ametsa da seguru, auskalo hezea, idazle ezezagun baten aurkikuntza egitea, gutxienez idazle ezezagunen baten obra ezezagunen batena, munduari deskubrimendu hori eskaintzea, mundu berri batena bailitzan. Euskaraz idatzi zuen Flaubert bat, Zola bat, Galdós bat aurkitzeak, literatura historiografiaren Olinpora sartuko luke zuzenean eta hotsandiz ikerlari, ikastun, eskukatzaile hori. Zeregin gaitza, hain zuzen, Jurgi Kintanak bere buruari ezarri diona *Urre urdinaren lilura* liburuan. *Euskal idazle galduaren bila* (1810-1940) azpitu-tuluan, poesiaren aukera posibleago eta sinesgarriagoari jarraikiko zaio bilatzailea: “Ez ote zen egon oharkabean geratu zaigun euskal poeta nabarmenik?”.

Bilaketa bat da, beraz, hemen proposatzen zaiguna, bidaia bat, eta bilaketa-bidaia guztietan gertatzen den bezala, askoz ere interesgarriagoa da helmuga baino bidea bera. Garaietan, obretan, hautagaietan barrena proposatutako hau da kitzikagarria, nahi baino epidermikoagoa, horregatik ere inspiratzailea. Helmuga, alegia aurkikuntzaren bat, edo bat baino gehiago, erdiesten duen jakiteko, liburua irakurtzea izango da onena. Baina onar bekito spoilerra: “Bilatutakoa ertzeko pertsonengan azaldu zaigu”, aitortuko du bukaera partean. Gauza jakina baita ertzak beti zentroa baino puskaz interesgarriagoak direla: “Joan-etorrian zebiltzanengan, euskal-erdal ertzean, arrotz gerturatueta eta bertoko arrotzuen artean”. Eta jakina den beste gauza bat, baina ez dena alferrikakoa behin eta berriz

gogoraraztea: “Kultur testuinguruaren garapenak biderkatzen du autore jeni-lak agertzeko probabilitatea”.

Izan ez ginen literatur historia loria-tua nekez osa dezakegu orain, diosku Kintanak, ez bada “euskal obra apokrifoen bidetik”. Ez luke balioko gure literatur tradizioa sendoago bihurtzeko, agian, baina zer ondo pasako genukeen bitartean. Literatura jolaserako ere bada, beharrezkoak iruditzen zaizkit Kintanarena bezalako ariketak, *establishment*a apur bat zirikatzen dutenak. Horren froga garbia, kritiken hemerote-kak liburuz bildu kritika gehienek —literatura ikerlari, ikastun, eskukatzaileenak, behintzat— liburua epel xamar utzi izana. Espero dezagun guk ere, hartara, “halako aurkikuntzak ez direla faltako (egiazkoak zein apokrifoak)”. ●